

Francisco de Vicenteren hitzaldia Donostian, UZEIren 30. urteurrenaren ekitaldian



Francisco de Vicente jn.

Europa eraikitzeke itzulpengintzak izan duen eta gaur egun duen garrantziaz mintzatuko da Europako Batzordeko Itzulpen Zuzendaritza Nagusiko (IZN) Francisco de Vicente jauna, UZEIren 30. urteurrena ospatzeko Donostian egingo den ekitaldian.

Francisco de Vicente Itzulpengintza Estrategiako eta Eleaniztasuneko Zuzendaria da 2005az geroztik Europako Batzordeko Itzulpen Zuzendaritza Nagusian eta, besteak beste, itzulpengintzaren beharraren eta eskaintzaren kudeaketarako orientazio estrategikoaz arduratzen da, terminologia koordinatzeaz eta aztertzeaz.

Ekitaldia datorren **azaroaren 22an** egingo da, **Donostiako Andia kaleko Kutxako ekitaldi-aretoan, arratsaldeko 18:00etan**. Amaieran mokadu bat jateko aukera izango dute bertaratzen direnek.

UZEIk 30. urteurrena ospatzen duela-eta antolatu ditu azaroaren 22ko ekitaldiak. Irabazi asmorik gabe, 1977az geroztik terminologian eta lexikografian lanean diharduen erakundea da UZEI, eta Eusko Jaurlaritzak 1989an onura publikoko erakunde izendatu zuen, hizkuntzaren ikerketan eskaintzen dituen zerbitzuengatik Euskal Autonomia Erkidegoaren interes orokorra sustatzen duelako.